

ESPAINIAREN ETA EBREN SAKONTZE FEDERALAREN ALDE

APLIKATU DITZAGUN PANDEMIAREN LEZIOAK

UEF Euskal Federalistak elkartearen adierazpena

Bilbon, 2022ko ekainaren 25ean

1. Pandemiak osasun publikoan eragindako krisi ezin larriagoak gure gobernu-sistema probatu du, bai autonomikoa, bai Europako integrazioa. Benetako erresistentzia-proba erreala eta eraginkorra izan da. Sistema federaletan zein EBn berretsi egin da printzipio federalaren egokitasuna: autogobernuaren (*self-rule*) eta gobernu komunaren (*shared rule*) arteko konbinazio egokia eta lankidetzaz-mekanismoen garrantzi erabakigarria. Jardunbide onenak, bideragarritasun eta eraginkortasun handienekoak, gobernu-maila bikoitz hori hobetu denean gertatu dira, aniztasunean integratzea erraztuz:

- EBn, Tratatuaren eta estatuen subiranotasunaren mugak gaindituz, haren alderdi federala indartu denean, gobernu komuna, funtzionamendu konfederala gaindituz;
- Sistema autonomikoa – sistema federaletan bezala –, gobernu komunaren – federala-gaitasuna ahuldu gabe, are gehiago, ahalmen hori indartuz, lurraldeek protagonismo argia hartu dutenean.

Europako integrazioak eta sistema autonomikoak krisiaren kudeaketarekin legitimitatea sendotu dute; gizarteak aurpegi eman beharreko erronkei aurre egiteko ezinbestekoak direla erakutsi dute. Krisi pandemikoak berretsi du gure etorkizuna, bai EBn bai Espainian, bide federalean aurrera egitea baino ezin dela izan.

2. Krisi-urte bi baino gehiago hauetan, ordea, gobernu-sistemaren diseinuan eta funtzionamenduan muga eta gabezia garrantzitsuak nabarmendu dira. Erakunde eta lege diseinuak ez dira nahikoak izan, desegokiak suertatu dira, eta, askotan, inprobisatzen eta hutsune juridikoan jardutera behartu dituzte. Lege- eta erakunde-sistema egokitzea ezinbestekoa da segurtasun juridikoa bermatzeko eta askatasun-ingurunea eta eskubideen bermea ziurtatzeko. Esperientzia honetan –gure herrialdean eta antzeko eredu instituzionaletan (herrialde federalak)– ikasi duguna aprobetxatzeko eta etorkizunerako aukera bihurtzeko unea da. Gobernu-sistema hobetuko duten eta eraginkorragoa egiteko duten erreformei aurre egin behar zaie.

3. Euskal Herriko Federalistak elkarte sistema autonomikoaren erreforma bat proposatuz sortu zen, haren osaera federalean sakontzeko. Legeen eta Konstituzioaren erreforma bat. Asmo horri kontra egiten zaio errealtate politikoak bideraezin egiten duela esanaz. Gaur egun bizi dugun blokeo politikoak –guztiz kontzientek gara– pragmatismo ariketa bat egitera behartzen gaitu; baina ezin gaitu erreformaren ezinbesteko beharra isiltzera eraman. Hori posible egiteko betebeharra dutenen –alderdi politikoen– erantzukizuna azpimarratu behar dugu. Herrialdeak behar dituen erreformei aurre egiteko alderdiek daukaten gaitasunik eza ezin dute aitzakia gisa erabili akordio politiko zabala lortzeko orduan dagokien erantzukizuna saihesteko. Paralisi hori, oso arriskutsua da komunitate politiko demokratiko gisa gure etorkizunerako.

4. Pragmatismoak erreforma pixkanaka bultzatzen saiatzera behartzen du, pandemiaren kudeaketan ikasitakoa jaso. Berehala sartu behar du legetan gobernuen arteko lankidetzan ikasitako esperientzia, behar bezala arautu behar du autonomia-erkidegoek larrialdi-egoeretan duten zeregina, eta autonomia-erkidegoen finantzaketaren erreformari aurre egin behar dio, jardunbide federal egokien argitan. Aurrerapauso handia litzateke, blokeo politikoak gainditzen eta beste erreforma batzuk – Konstituzioarena barne– egiten lagundu beharko bailuke.

5. Euskadik protagonismo aktiboko jarrera izan behar du sistema autonomikoaren erreforman. Erreforma funtsezkoa da gure autogobernua hobeto taxutzeko. Sistema osoaren osasunak baldintzatzen du haren osasuna. Horregatik, gure interesa da erreforma horretan laguntzea eta Espainiako errealtateari egokien deritzogun sistema federalaren zigilua inprimatzea. Ezin dugu autogobernu egokirik lortu Euskadin, sistema autonomikoa, oro har, egokia ez bada. Hura hobetzeko erreforman parte ez hartzeak, gure autogobernua hobetzeari modu erreal eta eraginkorrean uko egitea esan nahi du. Immobilismoak prezio altua dakar Euskadirentzat.

6. Sistema autonomikoaren erreforma bultzatzean, saihestu beharreko bi arrisku handi ditu Euskadik. Lehenik eta behin, eredu bideraezina, erabat idealizatua aplikatzeko aukera erreal eta eraginkorrik ez duena aukeratzea; izan ere, oraina hobetzeari uko egitea dakar, ideal erabilezin baten mesedetan, eta hori gizartearen sektore bati bakarrik interesatzen zaio. Bigarrenik, oker uste izatea gure autogobernua erreformatzeko nahikoa eta sobera dela Estatutua erreformatzearekin. Porrotera behartutako eragiketa da ezinbestean, zeren, sistema federal orotan bezala, bere oinarriak Konstituzioan eta lege orokorretan baitaude. Bi akatsen ondorioei buruzko esperientzia historikoa dugu – geurea eta besterena–. Horiek errepikatzea arduragabea litzateke.

7. Baina, horrekin batera, Estatutuaren erreformari ere aurre egin behar zaio. Erantzukizun politiko eta instituzionalak erreforma horren inguruan orain arte egindako bidea onartzea eskatzen du. Eusko Legebiltzarreko Autogobernu Lantaldeak izendatutako Lantalde Teknikoak egin zuen lanak izan behar du zereginari berriro ekiteko abiapuntua. Estatutuaren erreforma ezin da Peneloperen zeregin bihurtu, egindako lana etengabe deseginez, abiapuntura itzultzeko. Talde Teknikoaren ekarpenek ezinbesteko bi alderdi agerian utzi zituzten: Estatutuaren erreformaren berezko eremua eta horren inguruan egon zitekeen adostasuna. Bi baldintza horiek onartu egin behar dira erreformaren bideari berriro ekitean. Kontrakoa ez litzateke arduragabekeria bakarrik; iruzur politikoa litzateke. Estatutuaren erreformak aukera eman behar du adostasun politiko zabala eratzeko, 1979an bezala, euskal gizarteari datozen hamarkadei sendotasunez aurre egitea ahalbidetuko dioten oinarriak ezartzeko.

8. Estatutuaren erreformak, garrantzi handiko barne-dimentsioa du batez ere. Horixe da, hain zuzen ere, sistema federaletan Konstituzio federalaren mendekoa den lurraldeen autonomia konstituzionalaren eremua. Estatutuaren erreformak aukera eman behar du herrialdearen barne-egitura instituzionalari buruz eta hura erreformatzeko jarraibideei buruz hausnartzeko, hau da, herrialdearen errealitateak eta dimentsioak eskatzen duten egiturari buruz hausnartzeko. Euskal gizarteak etorkizuneko erronkei eraginkortasunez aurre egiteko egitura instituzional egokia behar du.

9. Europako hiritarrok, estatuak eta herriek erronka handia dugu Europa federalagoa, kooperatiboagoa eta eraginkorragoa eraikitzeko bidean aurrera egiteko. Finantza-krisiak, COVID-19ak, gerrak, klima-aldaketak, digitalizazioak eta migrazio berriek eragindako erronkek politika komun gehiago eta Europa gehiago behar dute. Batasun politikoan aurrera bakarrik egingo dugu demokrazia, gizarte-elkartasuna eta bakea defendatzeko Europako idealekin bat datozen estatu sendo eta kohesionatuak lortzen baditugu. Estatu bakoitzaren barruan aniztasun politikoa, kulturala eta sentimendu nazionalak aitortzea eta aniztasun hori bermatuko duen erakunde-artikulazio egokia ezinbesteko baldintza da erronka transzendental horrek eskatzen duen egonkortasuna bermatzeko.

UEF Euskal Federalistak